

PARTAIDETZA PLANA

1. ARAUDI APLIKAGARRIA, PARTAIDETZA PLANAREN EDUKIA ETA XEDEA.....	2
2. INTERESATUTA DAUDEN GIZARTE ERAGILE ETA HERRITARREN IDENTIFIKAZIOA	2
3. ZABALPENERAKO ETA PARTAIDEZARAKO TRESNAK. METODOLOGIA	4
3.1. Parte hartzeko foro digitala:.....	4
3.2. Dibulgazio materiala	6
3.3. Online parte hartzea.....	6
4. SARRIGURENGO UDALEZ GAINDIKO PLAN SEKTORIALA ALDATZEKO PROPOSAMENAREN LABURPENA.....	7
4.1. Kokalekua	7
4.2. SARRIGURENGO Ekohiriko Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzeko proposamenaren edukia.....	9
5. BIDERAGARRITASUNAREN ETA JASANGARRITASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA.....	12
6. PARTAIDETZA PROZESUAN BALORATUTAKO ONDORIOAK....	12

1. ARAUDI APLIKAGARRIA, PARTAIDETZA PLANAREN EDUKIA ETA XEDEA

Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak, 7. artikuluan, administrazio publikoak gonbidatzen ditu herritarren partaidetza ahalik eta zabalena sustatu dezaten lurraldea eta hirigintza antolatzeko jarduera orotan.

Artikulu horren 3. atalaren arabera, lurraldea antolatzeko tresnek herritarrentzako partaidetza prozesu bat eduki beharko dute, kontsulta izaerakoa, tresnaren hasierako onespena baino lehen.

Bestalde, 4. atalari jarraikiz, partaidetza prozesu hori bideratzeko Partaidetza Plan bat egingen da, gutxienez **eduki** batzuk jasota. Hauexek dira:

- a) Interesatuta dauden gizarte eragileen eta herritarren identifikazioa.
- b) Antolamendu proposamen garrantzitsuenen laburpenak, herritarrek errazago uler ditzaten eta errazago zabal daitezten herritarren artean.
- c) Bideragarritasunaren eta jasagarritasun ekonomikoaren memoria.
- d) Zabalpenerako eta partaidetzarako tresnak. Metodologia.
- e) Garatutako partaidetza prozesuan baloratutako ondorioak.

Hau da Partaidetza Plan honen **xedea**:

- Espedientearen xedeari buruzko informazio esanguratsua interesdunen esku jartzea.
- Parte hartzeko eskubideaz eta eskubide hori gauzatzeko moduz informatzea.
- Gizarte eragile eta herritar interesdunen partaidetza sustatzea, iruzkinak eta ekarpenak egiteko duten eskubidea aitortuta.
- Interesdunen informazio erabilgarria eskuratzeko hartutako aukera justifikatzea, hasierako agirian aplikatzeko (hala badagokio).

2. INTERESATUTA DAUDEN GIZARTE ERAGILE ETA HERRITARREN IDENTIFIKAZIOA

Prozesuan parte hartzera gonbidatu diren gizarte erakunde edo/eta taldeak hautatzeko, garatu beharreko proiektuaren ezaugarriak eta irismena aztertu behar dira.

Sarrigurengo Ekohiriko (Eguesibar) Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketaren arabera, ECP-1A (Institutua) eta DD-14 (Hornidura) lurzatien artean dagoen oinezko pasabidea ezabatu nahi da, horietako bigarren lurzatian (DD-14) Sarriguren BHI Institutua handitzean jarraitutasuna eman dakion ECP-1A

PARTAIDETZA PLANA

lurzatian (Institutua) dagoen egungo eraikuntza multzoari. Era berean, eta proposamenaren xedearekin bat, DD-14 lurzatiari (Hornidura) irakaskuntza erabilera esleitu/zehaztu dakiola planteatzen du.

Ondorioz, lehenik eta behin, komenigarritzat jo da Eguesibarko Udaleko hirigintza eta partaidetzaren arloen ardura duten udal teknikariak eta ordezkari politikoak partaidetza prozedura gonbidatzea; zehazki:

- Eguesibarko Udaleko alkatea.
- Herritarren Partaidetzaren Arloko zinegotzia.
- Udal arkitektoa.
- Partaidetzaren Arloko teknikaria.

Ondoren, kontuan hartuta planteamenduaren azken xedea dela gaur egungo eraikuntza multzoak jarraitutasuna izan dezala DD-14 lurzatian aurreikusitako Sarriguren BHIa handitzeko proiektuan, egokia eta komenigarria da honako talde hauen iradokizunak jasotzea:

- Sarriguren BHIko zuzendaria
- Sarriguren BHI-KO Eskola Kontseilua
- Sarrigurengo lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetako (Joakin Lizarraga IP eta Hermanas Uriz Pi HLHIP) ikasleen gurasoen elkarteak, ikastetxe berriaren etorkizuneko erabiltzaileak izanen direnez gero.

Azkenik, ingurune hurbileko higiezin jabeak ere parte hartzeko interesdunak izanen dira:

- Honako kale hauetan dauden eraikin jabeen erkidegoa: IBIA 18-28, ELIZMENDI 9-19, UREDERRA 5-7 ETA ESPAÑA ETORBIDEA 8-12
- Honako kale hauetan dauden eraikin jabeen erkidegoa: IBIA 10-16, URALAR 5-7, ELIZMENDI 1-7, UREDERRA 6-8

Hala ere, interesa duen edozein herritarri parte hartzeko aukera emanen zaio. Horretarako, partaidetza aktiborako gonbidapena egingen zaio, Partaidetza Plan hau Eguesibarko Udaleko eta Nafarroako Gobernuko herritarren partaidetzarako web espazioan argitaratuta:

- <https://valledeeguesparticipa.com/eu/>
- <http://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza>

PARTAIDETZA PLANA

3. ZABALPENERAKO ETA PARTAIDETZARAKO TRESNAK. METODOLOGIA

Agiria zabaltzeko, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 7. artikuluko 4. apartatuak dio derrigorrezkoa dela online parte hartzeko sistemak nahiz azalpen saioak gauzatzea etorkizuneko antolamenduari eta baloratutako aukeren edukiei buruz.

3.1. Parte hartzeko foro digitala:

Planteatutako aldaketaren eta bestelako aukera posibleen edukia ezagutzera emateko, bi foro egitea proposatu da. Foro horiek azalpenak eman eta partaidetza ahalbidetzekoak izanen dira, eta, hala, Sarrigurengo Ekohiriko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketa egiteko prozesua aberasten ahalko da.

- **Lehen foroa**

Lehen saio honetan, partaideei proposamenaren berri emanen zaie. Sarrigurengo Ekohiriko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketari buruzko agiri teknikoa egin baino lehen gauzatuko da, hain zuzen ere, saioa.

Online bilera izanen da (murrizketa sanitarioen ondorioz), informazioa emateko eta partaidetza ahalbidetzeko. Helburuak honako hauek izanen ditu:

1. Proposamena ezagutzera emanen du.
2. Saioan parte hartzen dutenen ekarpenak eta iradokizunak jasoko dira.

Horretarako, saioa honako egitura honen arabera garatu dadila planteatu da:

1. Gonbidatuei harrera egin eta partaidetza prozesua azaltzea.
2. Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketaren edukia aurkeztea.
3. Parte hartzeko fasea. (Galderak, iradokizunak, etab.).

Lan metodologia partaidea garatzeko, saioko edukiak Power Point baten laguntzaz aurkeztuko dira.

Azalpenaren ondoren, partaidetza fasea irekiko da. Bertan, deituta dauden pertsonak aukera izanen dute proposamenari buruzko galdera edo/eta balorazioak egiteko.

Foro digitalaren funtzionamenduan, hainbat arau hartuko dira kontuan, partaidetzaren xedearren gainean partaidetza ekitatiboa bermatzeko. Oinarrizko arauak honako hauek izanen dira:

- Dinamizatzaile bat egonen da, parte hartzeko denborak eta dinamikak ezartzeko.
- Partaidetzan lortu nahi den xedearren arabekoak izanen dira saioak.

PARTAIDETZA PLANA

- Saioa grabatu egingen da, sistematizazio ahalik eta onena lortzeko.
- Dinamizatzaileak ezarriko ditu hitz egiteko txandak eta horien iraupenak. Hitz egiteko, aplikazioko txatetik eskatzen ahalko da txanda.
- Mikrofonoak itxita egonen dira, elkar ulertzea ahalik eta onena izan dadin. Dinamizatzaileak adieraziko du mikrofonoak noiz ireki behar diren, kasuan kasuko pertsonak hitz egiteko.

Aldaketaren gaineko interesa duten pertsonen (udal ordezkariak, aurreko atalean adierazitako elkarteak, ondoko lurzatiaren jabeak eta abar) parte hartzeko gonbidapena egingen zaie, eta, horretarako, zitazio bat bidaliko zaie. Hautatutakoek gain, interesa duen edozein pertsona konektatzen ahalko da, esteka eskuragarri egonen baita Eguesibarko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren partaidetzarako web espazioetan.

Bilera amaitzean edo/eta iradokizunak jasotzean, akta idatziko da, bilera nola joan den eta zein ekarpen egin diren jasotzeko.

- **Bigarren foroa**

Planteatu den bigarren saioak lehen saioarekin izanen du lotura. Izan ere, jasotako ekarpenak zein izan diren eta horiek proposamenean jaso diren ala ez azalduko zaie partaideei.

Sarrigurengo Ekohiriko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketari buruzko agiria hasieran onesteko aurkeztu baino lehen gauzatuko da saioa.

Era berean, saio hau egiteko, beharrezko materiala prestatuko da (PowerPoint), aurkezpena egingen da, eta, beharrezkoa bada, dinamizatu egingen da.

Lehen saioan ekarpenik jasotzen ez bada edo, ekarpen horiek proposamenerako esanguratsuak ez badira, bigarren saiorik ez da egingen.

Halaber, bileraren ondoren beste akta bat egingen da, saioa nola joan den eta zein ekarpen aurkeztu diren jasotzeko.

Aldaketa azaltzeko eta parte hartzeko saioen deialdiak honela egingen dira:

- Gonbidapena egingen zaie, mezu elektroniko bidez edo telefonoz, udal ordezkariari, Sarriguren BHIko zuzendariari, lotutako guraso elkartei.
- Banakako komunikazioa egingen zaie, lotutako higiezin jabe erkidegoei.
- Deialdia Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren webguneetan argitaratuko da.

Aurreikusitako saioak garatzean, bertaratu diren pertsonen zerrenda jasoko da.

PARTAIDETZA PLANA

3.2. Dibulgazio materiala

Partaidetza Planaren barruan, agiri honen 4. atalak proposamenaren laburpen bat jasotzen du, eduki eskematiko eta grafikoa duena, hura hobeki ulertu ahal izateko.

Laburpen hori Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren webguneen bidez eskuratzen ahalko da. Hala, lehen foroa egin baino lehen ezagutzen ahalko dute.

Foro digitaletarako aurkezpenak PowerPoint bidez egiten dira. Horietan Sarrigurengo Ekohiriko Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzeko proposamena eta parte hartzeko mekanismoak azalduko dira.

3.3. Online parte hartzea

Foro digitalez gain, lehen ere aurreratu den bezala, parte hartzeko aukera gehiago eskaintzeko, webgune bat gaituko da interesa duen pertsona ororentzat, proposamenarekin lotutako ekarpenak bidaltzeko aukera izan dezan.

Kontuan hartuta Eguesibarko Udaleko nahiz Nafarroako Gobernuko webguneetan espazio bat dagoela herritarrek parte har dezaten, aurreko ataletan azaldu dugun bezala, webgune horietan dokumentazioa argitaratuko da, online parte hartzeko aukera errazteko.

- <https://valledeeguesparticipa.com/eu/>
- <http://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza>

Era berean, helbide elektronikoko bat emanen da, online ekarpenak bertara bidal daitezen:

- infraestructuraseducativas@navarra.es

Online parte hartzeko epea lehen saioa egin baino astebete lehenago hasiko da (data horretarako, dokumentazioa webguneetan eskegita egonen da), eta lehen saioa baino bi aste geroago amaituko da (lehen saioa 2021eko martxoaren 23rako aurreikusi da), hau da, apirilaren 7an amaituko da, egun hori barne.

4. SARRIGURENGO UDALEZ GAINDIKO PLAN SEKTORIALA ALDATZEKO PROPOSAMENAREN LABURPENA

Sarrigurengo Ekohiriko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketa planteatu da, ECP-1A lurzatian dagoen egungo eraikuntzari jarraitasuna eman dakion DD-14 lurzatian (hornidura) aurreikusitako zabalkundean. Horretarako, bi lurzatiaren artean dagoen oinezko pasabidea ezabatu beharko da.

4.1. Kokalekua

ECP-1A eta DD-14 lurzatiak Sarrigurengo Bizitegi Eremuaren hego-mendebaldean daude.



Zehazki, Elizmendi kaleko 2 (ECP-1A) eta 4 (DD-14) zenbakietan daude. Lurzati horien gainean, bi etxadi daude; mendebaldean eta hegoaldean, Udalez gaindiko Plan Sektorialak "korridore ekologiko" gisa definitzen duen espazio batekin egiten dute muga lurzatiek; eta, ECP-1A eta DD-14 lurzatiek eratutako multzoaren ekialdean Espainia etorbidea dago.

Katastroan, ECP-1A lurzatia 15. poligonoko 188. lurzatia da, eta DD-14 lurzatia, berriz, Eguesko katastroko 15. poligonoko 379. lurzatia.

PARTAIDETZA PLANA

Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketa **SARRIGURENGO EKOHIRIA**
DD-14 LURZATIA. ECP-1A ETA DD-14 LURZATIEN ARTEKO OINEZKO PASABIDEA

ECP-1A lurzatian Sarriguren BHIa dago. Lurzatiak 8.424 m²-ko azalera du.

DD-14 lurzattia eraiki gabe dago. Barnealdean, kirol pista batzuk eta txakurren aisialdirako gunek bat egokitu dira. Lurzatiak 6.782 m²-ko azalera du.

Bi lurzatiarten artean, 6 metroko zabalera duen oinezko pasabidea bat dago. Pasabidea horrek Elizmendi kalea komunikatzen du lurzatiaren hegoaldean dagoen espazio librearekin.



Irudia. Ezkerrean ECP-1A lurzattia ageri da eta eskuinean DD-14 lurzattia. Bien artean oinezko pasabidea dago.



ECP-1A lurzattia



DD-14 lurzattia

PARTAIDETZA PLANA

Udalez gairdiko Plan Sektorialaren aldaketa **SARRIGURENGO EKOHIRIA**
DD-14 LURZATIA. ECP-1A ETA DD-14 LURZATIEN ARTEKO OINEZKO PASABIDEA

4.2. SARRIGURENGO Ekohiriko Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzeko proposamenaren edukia

Proposamen honen bidez, gaur egun EDCP-1A lurzatian dagoen Sarriguren BHI Institutuaren jarraitasuna bermatu nahi da DD-14 lurzatian (hornidura) aurreikusitako zabalkundean, bien artean dagoen oinezko pasabidearen beste aldean. Horretarako, oinezko pasabidea ezabatu egin beharko da, eta DD-14 lurzatiari irakaskuntza erabilera esleitu/zehaztu.

Sarrigurengo Ekohiriko Udalez gaindiko Plan Sektorialak, 2004an onartutako aldaketaren ondoren, hainbat hornidura eta ekipamendu publiko antolatu nahi ditu, tartean ECP-1A (Erabilera Anitzeko Erkidego Ekipamendua) eta DD-14 (Kultura Hornidura).

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari beharrezkoa iruditu zaio ECP-1A lurzatian dagoen Sarriguren BHIa handitzea, 2.700 m² eraikiko azaleran (3.700 m² eraikira igo ahalko litzateke). Azalera hori ez da sartzan gaur egun bere kokaleku den lurzatian, eta, beraz, DD-14 lurzattia okupatu beharko litzateke.

Ikastetxeak ongi funtziona dezan, ezinbestekoa da bi lurzatiaren artean dagoen oinezko pasabidea ezabatzea. Hartara, eraikin berriak eta horien patioak konektatzen ahalko dira, eta, beraz, espazio integratu bat sortu.

Oinezko pasabide horrek lotzen ditu (beste lotura elementu batzuen artean) egoitza arloko bide sistema eta Sarrigurengo Ekohiriko Udalez gaindiko Plan Sektorialak "korridore ekologiko" gisa izendatzen duena. Osagai horiek hiriaren kanpoko sistema naturaletan integratuta daude, ingurumena hobetzea baitute xede. Hau da, hiria eta bere hurbileneko espazio naturala lotzeko oinezko lotura da.

Bestalde, oinezko pasabide honek ez du jarraitutasunik Sarrigurengo bide sisteman. Ondorioz, pasabide hori ezabatzeak ez du disfunczionik eraginen beste lotura elementu batzuetan. Pasabidea ezabatutakoan, ECP-1A lurzatiaren mendebaldetik edo DD-14 lurzatiaren hego-ekialdetik sartzan ahalko da eremu naturalera. Edonola ere, naturara sartzeko lekualdaketak ez dira nabarmen areagotuko.

Oinezko pasabidearen azalera (katastroko informazioaren arabera 450 m²-koa da), DD-14 lurzatian sartuko da (katastroko 15. poligonoko 379. lurzattia).

DD-14 lurzatiari hornidura erabilera esleitzeko proposamena dela eta, plangintza honek egoera hori argitzea dauka helburu. Nahiz eta Sarrigurengo Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketari buruzko 2004ko memoriak "kultura" horniduratzat jotzen duen, Sarrigurengo Udalez gaindiko Plan Sektorialaren araudiak dioenez, ekipamendurako erabiliko diren lurzatiaren: "*Arau berezian ezartzen ez bada, edozein ekipamendu mota izaten ahalko da*" (Sarrigurengo Udalez gaindiko Plan Sektorialeko hirigintza arauetako 11. artikulua. Lurzoru Urbanizagarri Antolatuan eraikitzeko ordenantzak; 08.1.2. puntua. Erabilera

PARTAIDETZA PLANA

baldintzak. Baimendutako erabilerak). Sarrigurengo Udalez gaindiko Plan Sektorialaren araudi bereziak ez du erabilera zehatzik ezartzen lurzati horretarako.

Bestalde, "kultura" erabilera hori Sarrigurengo Udalez gaindiko Plan Sektorialaren jatorrizko antolamendutik dator (lehengo DD-10 lurzatia). Agiri horretan, justifikatu egiten da "irakaskuntza eta kultura ekipamenduaren" estandarrak betetzen direla (Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Erregelamenduaren 23.1 artikulua araberak), hau da, irakaskuntzako eta kulturakotzat jotzen da talde berean.

DD-14 lurzatiari irakaskuntza erabilera esleitzeak zentzua ematen dio proposamenari.

EGUNGO ANTOLAMENDUA



PARTAIDETZA PLANA

Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldeketa **SARRIGURENGO EKOHIRIA**
DD-14 LURZATIA. ECP-1A ETA DD-14 LURZATIEN ARTEKO OINEZKO PASABIDEA

PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUA



Baloratutako aukerak

Planteatutako helburuaren arabera, aztertutakoaz bestelakoa den aukera bakar bat planteatu daiteke: DD-14 lurzatiari irakaskuntzako hornidurazko erabilera esleitzea, baina oinezko pasabidea ezabatu gabe.

Horren arabera, beharrezkoa litzateke eraikuntza eta haren patioa DD-14 lurzatian proiektatzea, EDC-1A lurzatian lehendik ere eraikita dagoenari jarraitutasunik eman gabe. Ondorioz, ikastetxeak ezin izanen luke ongi funtzionatu, bi espazio independentetan garatu beharko bailitzateke, ikastetxeko zati desberdinetara sartzeko aukera nabarmen kaltetuz.

Bestalde, aurreko atalean adierazi den bezala, pasabide hau ezabatuz gero, ez da askorik kaltetzen inguruko oinezkoen mugikortasuna.

Hori dela eta, aukera honen balorazioa ez da positibotzat jo planteatu den proposamenerako, abantaila baino desabantaila gehiago eragiten dituela kontuan hartuta.

PARTAIDETZA PLANA

5. BIDERAGARRITASUNAREN ETA JASANGARRITASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA

Sarrigurengo Ekohiriko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketan proposatutako antolamenduak ekipamendu publiko bat ezartzea du azken xede. Ondorioz, ezin da bere bideragarritasuna errentagarritasun ekonomikoaren arabera baloratu, proposamenaren zioz ez baita inoiz hirigintzako aprobetxamendurik sortuko.

Hala ere, aipatzekoa da oinezko pasabidea ezabatzeak ez duela aparteko gasturik eraginen. Izan ere, institutua handitzeko eta lurzattia egokitzeko egikaritze obren partidan sartuko dira lan horiek.

Jasangarritasun ekonomikoari erreparatuz gero, jarduera honek Toki Ogasunean (Eguesibarko Udalean) izanen duen eragina ebaluatuta, aipatzekoa da Udal honek ez duela inolako kostu osagarriarik ordaindu behar izanen DD-14 lurzatian garatuko den ikastetxe berria egin eta martxan jartzeko obren zioz, eta, halaber, ez duela oinezko pasabidea ezabatzearen gastua ordaindu beharko, azken hori DD-14 lurzattia lotuta dagoenez, lurzatiaren titularra (Nafarroako Gobernuak) izanen delako gastua ordaindu behar duena.

Aitzitik, Eguesibarko Udalak ez du azalera hori mantendu, garbitu, argiztatu...beharko, ekonomikoki horren onurak jasoz.

Hau da, azken finean, eta, azken ondorio gisa, Sarrigurengo Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzeko proposamenak ez dio Eguesibarko Udalari inolako gastu osagarriarik sortuko, bere udal aurrekontuetan desoreka negatiborik eragiteko moduan.

6. PARTAIDETZA PROZESUAN BALORATUTAKO ONDORIOAK

Bilerak egin eta web espazio desberdinen bidez iradokizunak aurkezteko epea amaitutakoan, partaidetza prozesuan baloratutako ondorioak sartuko dira atal honetara.

Iruñean, 2021eko martxoan

Egilea:



Sin. Teresa Nebreda Artieda
arkitektura & hirigintza

PARTAIDETZA PLANA

Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketa **SARRIGURENGO EKOHIRIA**
DD-14 LURZATIA. ECP-1A ETA DD-14 LURZATIEN ARTEKO OINEZKO PASABIDEA